



ZIZURKILGO UDALA

### **OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA**

Honen bidez, Ohiko Osoko Bilkurara deitzen dizut:

Eguna: **2017ko uztailaren 27a, osteguna**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

### **EGUNEKO AZTERGAIK**

- 1.- **AURREKO UDALBATZARRAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2017.05.29).**
- 2.- **2016ko AURREKONTUEN KONTU OROKORRA ONARTZEA.**
- 3.- **2017 - 2018 IKASTURTERAKO TASEN ALDAKETA ONARTZEA.**
- 4.- **P.S.E.-E.E. ETA E.A.J.-P.N.V.K AURKEZTUTAKO MOZIOA, ZIZURKILGO HAINBAT TOKITAN AGERTU DIREN PINTADEN HARIRA.**
- 5.- **EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUARI BURUZ.**
- 6.- **ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (88/2017tik 120/2017ra).**
- 7.- **GALDE-ESKAKIZUNAK.**

Zizurkilen, 2017ko uztailaren 21ean

Jarduneko Alkatea.

### **CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO**

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Ordinario a celebrar:

Día: **27 de Julio de 2.017, jueves**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.


### **ORDEN DEL DÍA**

- 1.- **APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL PLENO ANTERIOR (29.05.2017).**
- 2.- **APROBACION DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DE 2.016**
- 3.- **APROBACION DE LA MODIFICACION DE TASAS PARA EL CURSO 2.017 – 2.018**
- 4.- **MOCION PRESENTADA POR P.S.E.-E.E. Y E.A.J.-P.N.V. EN RELACION CON LAS PINTADAS APARECIDAS EN DIVERSOS LUGARES DE ZIZURKIL.**
- 5.- **MOCION PRESENTADA POR EH BILDU EN RELACION AL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA.**
- 6.- **COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (89/2017 al 120/2017).**
- 7.- **RUEGOS Y PREGUNTAS.**

Zizurkil, 21 de Julio de 2.017

La Alcalde en funciones.





ZIZURKILGO UDALA

**2017ko UZTAILAREN 27an EGINDAKO  
OHIKO BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION ORDINARIA  
CELEBRADA EL DIA 27 DE JULIO DE  
2.017**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA/ALCALDE:**

José María Luengo Zapirain Jauna (EH Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**

Maite Amenabar Alkorta (EH Bildu)

Arkaitz Zaldúa Jauregi (EH Bildu)

Olga Aldaz Carretero (E.A.J.-P.N.V.)

Eva Usandizaga Mujika (EH Bildu)

José Antonio Sánchez Almaraz (Socialistas Vascos – Euskal Sozialistak)

Aitor Sarasua Arruti (EH Bildu)

María Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Jesús María Alkorta Etxezarreta (E.A.J.-P.N.V.)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamazazpiko uztailaren hogeita zazpiko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udaltzazka bildu da, Alkate jaunaren lehendakari zapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) eta Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakari zaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- AURREKO UDALBATZARRAREN  
AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA  
(2017.05.29).**

Udalbatzak, ahobatez erabaki du 2017ko maiatzaren 29an egindako Bilkuraren Akta onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veintisiete de Julio de dos mil diecisiete, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Nuria Martín Ibán (E.A.J.-P.N.V.) y Jon Ander Esnaola Arruti (EH Bildu)

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL  
ACTA DEL PLENO ANTERIOR  
(29.05.2017).**

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el Acta del Pleno celebrado el día 29 de Mayo de 2.017



## ZIZURKILGO UDALA

### 2.- 2016ko AURREKONTUEN KONTU OROKORRA ONARTZEA.

Espedientea ikusirik eta jakinda 2017ko maiatzaren 29an Udal honetako Kontuen Batzorde Berezia 2016 ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari aldeko txostena eman ziola.

Aipatutako Kontua jendeaurrean jarria izan zen 15 eguneko epean eta alegazio edo erreklamazio bat ere ez zen aurkeztu.

Kontuan hartuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63 artikuluari jarraiki, Udalbatzari dagokiola Kontu Orokorrak onartzea.

Ondoren, Udalbatzak bozketa egin du aurkeztutako proposamena onartzeko. Hau da emaitza:

- Alde: 9 (5 de Bildurenak, 3 de E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurka: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, aho batez, erabaki du:

Lehena.- 2016 ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorra behin betirako onartzea.

### 3.- 2017 - 2018 IKASTURTERAKO TASEN ALDAKETA ONARTZEA.

2017-2018 ikasturterako kulturako ikastaroen Tasen aldaketaren proposamena jakinarazten da.

Proposamena eta Kultura batzordearen aldeko txostena ikusi ondoren, Udalbatzak hau onartzeko dagokion bozketa egiten du, emaitza honekin:

- Aldeko botoak: 9 (5 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

### 2.- APROBACION DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DE 2.016

Visto el expediente y resultando que el día 29 de Mayo de 2.017 la Comisión Especial de Cuentas de este Ayuntamiento emitió informe favorable sobre la Cuenta General del Presupuesto de 2.016

Expuesta dicha Cuenta al público por plazo de 15 días, resulta que no se han presentado alegaciones ni reclamaciones.

Considerando que es competencia del Pleno la aprobación definitiva de la Cuenta General, a tenor de lo establecido en el artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (5 de Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Aprobar definitivamente la Cuenta General del Presupuesto del ejercicio de 2.016

### 3.- APROBACION DE LA MODIFICACION DE TASAS PARA EL CURSO 2.017 - 2.018

Se da cuenta de la propuesta de modificación de las Tasas para los cursillos de cultura que se van a impartir durante el curso 2017-2018

Vista la propuesta y el informe favorable de la Comisión de Cultura, la Corporación, procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 9 (5 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.



## ZIZURKILGO UDALA

beraz, Udalbatzak, aho batez onartu du:

Lehena.- 2017-2018 ikasturtean egingo diren kulturako ikastaroen Tasak onartzea, Akta honen I Eranskinan agertzen diren bezala geratzen dira.

Bigarrena.- Erabaki hau jendaurrean jarriko da hogeita hamar egunez, erreklamazioetarako. Epe horretan erreklamazio edo obserbaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakia behin betikotzat joko da, erabaki berrien beharrik gabe.

### **4.- P.S.E.-E.E. ETA E.A.J.-P.N.V.K AURKEZTUTAKO MOZIOA, ZIZURKILGO HAINBAT TOKITAN AGERTU DIREN PINTADEN HARIRA.**

Aurkeztutako mozioa ikusirik (akta honetako II. eranskinean ageri den mozioa) eta gaiaz eztabaidatu ondoren, bozketa puntuaz puntu egitea adostu da.

Lehenengo puntua, “Udalean dauden kartelak eta pintadak garbitzeko ordenantza arretaz ezartzea”, azterturik, emaitza honako hau da:

- Aldeko botoak: 9 (5 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurrakoto botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Hortaz, udalbatzak puntu hori onartzea adostu du, aho batez.

Gai horri dagokionez, alkateak adierazi du gaur egun ezartzen dela aipatutako ordenantza eraikin eta toki publikoetan.

Bigarren puntua, “Udalerriaren gaitasunaren arabera, lan-ildok jar daitezela abian iritzi-aniztasunaren errespetua sustatzeko, bai eta jabetza pribatu zein publikoarekiko errespetua ere”, azterturik, emaitza honako hau da:

- Aldeko botoak: 9 (5 EH Bildurenak, 3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-ESrena).
- Aurrakoto botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Por lo que la Corporación, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Aprobar las Tasas para los cursillos de cultura que se van a impartir durante el curso 2017-2018, quedando éstas como se señalan en el Anexo I del presenta Acta.

Segundo.- Exponer al público el acuerdo adoptado y el expediente instruido al efecto por período de treinta días hábiles a fin de que los interesados puedan examinarlos y formular las alegaciones y reclamaciones que consideren oportunas.

### **4.- MOCION PRESENTADA POR P.S.E.-E.E. Y E.A.J.-P.N.V. EN RELACION CON LAS PINTADAS APARECIDAS EN DIVERSOS LUGARES DE ZIZURKIL.**

A la vista de la Moción presentada, que es la que se refleja en el Anexo II de este Acta, y tras debatir el tema, se acuerda que la votación se realice punto por punto.

En el primer punto “Aplicar con diligencia la ordenanza de limpieza de carteles y pintadas existentes en el Ayuntamiento”, el resultado es:


- Votos a favor: 9 (5 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobarlo.

Al respecto el Alcalde manifiesta que actualmente ya se aplica la mencionada Ordenanza en lo referente a los edificios y lugares públicos.

En el segundo punto “Que se pongan en marcha, dentro de las posibilidades del municipio, líneas de trabajo para fomentar el respeto a la diversidad de opiniones, el respeto a la propiedad tanto privada como pública”, el resultado es:

- Votos a favor: 9 (5 de EH Bildu, 3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.



## ZIZURKILGO UDALA

Berak, udalbatzak puntu hori onartzea adostu du, aho batez.

Hirugarren puntua, “Fatxada pribatuak garbitzeko diru-laguntzak emateko aukera aztertzea”, azterturik, emaitza honako hau da:

- Aldeko botoak: 4 (3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Aurkako botoak: 5 (5 EH Bildurenak).
- Abstentzioak: 0.

Hortaz, udalbatzak puntu hori ez onartzea erabaki du, botoen gehiengoz.

EH Bilduk adierazi du oraingoz ez dagoela pentsatuta horretarako diru-laguntzak ematea. Nolanahi ere, aztertzeko moduko gaia izango litzateke datorren urteko aurrekontua prestatzeko garaian, eta nola arautu erabaki beharko litzateke, emateko aukerarik egongo balitz.

Horrez gain, adierazi du aldarrikapen-pintadak eta pankartak desagertzeko modurik onena izango litzatekeela presoan eskubideak errespetatzea, horrela ez litzatekeelako aldarrikapenik egin beharko. Hori dela eta, gainerako taldeei dei egin die presoan sakabanaketaren amaiera eskatzeko.

E.A.J.-P.N.V.k eta S.V.-E.S.k uste dute eskaera hori tokiz kanpo dagoela guztiz, aurkeztutako mozioa pintadei eta pankartei buruzkoa delako, eta ez presoan eskubideei buruzkoa.

### **5.- EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA, ETXEZ ETXEO LAGUNTZA ZERBITZUARI BURUZ.**

Aurkeztutako mozioa ikusirik, E.A.J.-P.N.V.ko bozeramaileak adierazi du Eudelek eta Foru Aldundiak hitzarmen bat sinatu dutela etxeko laguntza-zerbitzua % 50 finantzatzeko 2017tik 2019ra bitartean.

Adostasunera iritsi direla ikusirik, ez dio zentzu handirik ikusten mozio horri, eta, hori dela eta, adierazi du kontra bozkatuko dutela.

Por lo que la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobarlo.

En el tercer punto “Que se estudie la posibilidad de subvencionar la limpieza de las fachadas privadas”, el resultado es:

- Votos a favor: 4 (3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Votos en contra: 5 (5 de EH Bildu).
- Abstenciones: 0.

Por lo que la Corporación, por mayoría de votos, acuerda no aprobar este punto.

EH Bildu manifiesta que de momento no se plantean conceder subvenciones para ese fin. De todas formas sería un tema a tratar de cara a la confección del Presupuesto del próximo año, y estudiar la forma de poder regularlas si es que es factible concederlas.


Así mismo manifiesta que para que desaparezcan las pintadas y pancartas de carácter reivindicativo, lo mejor sería que se respetasen los derechos de los presos ya así no habría lugar a reivindicaciones, por lo que anima al resto de grupos a solicitar el fin de la dispersión de los presos.

E.A.J.-P.N.V. y S.V.-E.S. consideran que esa solicitud está fuera de lugar ya que la moción presentada trata de las pintadas y pancartas y no de los derechos de los presos.

### **5.- MOCION PRESENTADA POR EH BILDU EN RELACION AL SERVICIO DE AYUDA DOMICILIARIA.**

A la vista de la Moción presentada, la portavoz de E.A.J.-P.N.V. manifiesta que Eudel y la Diputación han firmado un convenio por el que se comprometen a financiar el servicio de ayuda domiciliaria al 50% durante los años 2.017 a 2.019

Visto que se ha llegado a un acuerdo, no le ven mucho sentido a esta moción, por lo que manifiestan que van a votar en contra.



## ZIZURKILGO UDALA

Iritzi bera agertu du S.V.-E.S.ko ordezkariak.

EH Bilduk adierazi du mozio hori aurkeztu duela udalek zerbitzuari egingo dioten ekarpena % 10etik % 50era igo delako, eta igoera ikaragarri horri ezingo diotelako aurre egin udal askok, batez ere udal txikiek. Gainera, jakinarazi dute Eudelen baitan bai EH Bildu bai Podemos ere guztiz kontra zeudela Foru Aldundiarekin hitzarmen hori sinatzeko.

Jarraian, udalbatzak bozketa egin du mozioa onartzeko, eta emaitza honako hau izan da:

- Aldeko botoak: 5 (5 EH Bildurenak).
- Aurkako botoak: 4 (3 E.A.J.-P.N.V.renak eta 1 S.V.-E.S.rena).
- Abstentzioak: 0.

Hortaz, udalbatzak, botoen gehiengoz, aurkeztutako mozioa onartzea erabaki du, akta honetako III. eranskinean ageri den mozioa.

### 6.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (88/2017tik 120/2017ra).

2017ko maiatzaren 23tik uztailaren 14ra Alkateak sinatutako 88/2017tik 120/2017ra zenbakia duten Dekretuen berri eman da. Jatorrizkoak, Alkatearen Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan azertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### 7.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

José Antonio Sánchez zinegotziak (S.V.-E.S.) zenbait gai aipatu ditu, kontuan izateko eta konpontzen saiatzeko:

Azkenportuko biribilguneko arriskua. Alkateak adierazi dio harremanetan daudela Foru Aldundiko Errepide Zuzendaritzarekin, konponbidea bilatzen saiatzeko.

De la misma opinión es el representante de S.V.-E.S.

EH Bildu manifiesta que han presentado esta moción porque la aportación de los ayuntamientos al servicio pasa de ser del 10% al 50%, lo cual supone un incremento brutal que muchos ayuntamientos, sobre todo los pequeños no van a poder asumir. Además comunican que dentro de Eudel, tanto ellos como Podemos estaban en total desacuerdo con la firma de ese convenio con Diputación.

Seguidamente, la Corporación procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 5 (5 de EH Bildu).
- Votos en contra: 4 (3 de E.A.J.-P.N.V. y 1 de S.V.-E.S.).
- Abstenciones: 0.

Por lo que la Corporación, por mayoría de votos acuerda aprobar la Moción presentada, que es la que se refleja en el Anexo III de este Acta.

### 6.- COMUNICACIÓN DE DECRETOS DE ALCALDÍA (88/2017 al 120/2017).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 88/2017 al 120/2017 firmados por la Alcaldía entre el 23 de Mayo y el 14 de Julio de 2.017, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

### 7.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

El concejal José Antonio Sánchez (S.V.-E.S.) plantea algunas cuestiones para se toma nota y se procuren solucionar:

Peligrosidad de la rotonda de Azkenportu. El Alcalde le comunica que ya se están realizando gestiones con la dirección de carreteras de la Diputación para tratar de buscar una solución.



## ZIZURKILGO UDALA

Pedro Maria Otaño ikastetxeko gasolio-depositua hustea eta Gizakia Helbururi 4.000 litro erregai emateko aukera. Alkateak adierazi dio gaia landuko dela eta aztertuko dela ea bideragarria den dohaintza hori egitea.

Vaciado del depósito de gasóleo de las Escuelas Pedro Maria Otaño y posibilidad de donar los 4.000 litros de combustible a Proyecto Hombre. El Alcalde le comunica que se tratará el tema y se verá la viabilidad de realizar dicha donación.


Beste aztergairik gabe, eta hogei orduak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.

O.I.  
ALKATEA.

Vº Bº  
EL ALCALDE.





ZIZURKILGO UDALA

## I ERANSKINA – ANEXO I

| IKASTAROA - CURSO                               | PREZIOA     |
|-------------------------------------------------|-------------|
|                                                 |             |
| HAURRENTZAT – INFANTIL                          |             |
|                                                 |             |
| GIMNASIA ERRITMIKOA – GIMNASIA RITMICA          | 90 €        |
| IPUINETIK ANTZERKIRA – DE LOS CUENTOS AL TEATRO | DOAN/GRATIS |
|                                                 |             |
| HELDUENTZAT – PARA MAYORES                      |             |
|                                                 |             |
|                                                 |             |
| ESKULANAK – TRABAJOS MANUALES                   | 100 €       |
| EUSKAL DANTZA (ordubeteko klasea)               | 90 €        |
| DANZA VASCA (una hora de clase)                 |             |
| EUSKAL DANTZA (ordu eta laurdeneko klasea)      | 110 €       |
| DANZA VASCA (una hora y cuarto de clase)        |             |
| EUSKAL DANTZA (ordu eta erdiko klasea)          | 140 €       |
| DANZA VASCA (una hora y media de clase)         |             |
| FORMAN JAR ZAITEZ – PONTE EN FORMA              | 135 €       |
| HELDUENTZAK GIMNASIA (Jubilatuak)               | 80 €        |
| GIMNASIA PARA ADULTOS (Jubilados)               |             |
| HELDUENTZAK GIMNASIA (Jubilatuak ez direnak)    | 110 €       |
| GIMNASIA PARA ADULTOS (No Jubilados)            |             |
| INGELESEKO MINTZAPRAKTIKA – PRACTICAS DE INGLES | 120 €       |
| MEMORIA TAILERRA – TALLER DE LA MEMORIA         | 100 €       |
| PATCHWORK                                       | 100 €       |
| PILATES                                         | 140 €       |
| PILOTA                                          | 50 €        |
| SABEL DANTZA – DANZA DEL VIENTRE                | 140 €       |
| YOGA                                            | 135 €       |
| ZUMBA                                           | 135 €       |



## II ERANSKINA -- ANEXO II

ZIZURKILGO UDALA

2017 EKA. 23

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia ..... 633

ZIZURKILGO UDALA

MOCIÓN QUE PRESENTAN PSE-EE Y EAJ/PNV con relación a las pintadas aparecidas en diversos lugares de Zizurkil.

### JUSTIFICACIÓN.

Ante la aparición en las últimas fechas de pintadas en diversos lugares y fachadas de nuestro municipio, queremos DENUNCIAR públicamente y demostrar nuestro DESACUERDO ante estos actos de carácter reivindicativo.

Entendemos que menosprecian tanto la propiedad pública como privada y lo único que consiguen es dañar la imagen de nuestro pueblo.

Cualquier reivindicación pierde valor cuando ese mismo acto menosprecia los derechos y libertades de los demás vecinos de Zizurkil.

Por dicho motivo, se solicita a la corporación municipal de Zizurkil que:

1º.. Aplique con diligencia, la ordenanza de limpieza de carteles y pintadas existente en el Ayuntamiento.

2º.. Que se ponga en marcha dentro de las posibilidades del municipio, líneas de trabajo para fomentar el respeto a la diversidad de opiniones; el respeto a la propiedad tanto privada como pública.

3º.. Que estudie la posibilidad de subvencionar la limpieza de fachadas privadas.

Josean Sánchez

PSE-EE

Mª Angeles Lazkano

EAJ/PNV



### III ERANSKINA -- ANEXO III

**ZIZURKILGO UDALA**

**2017 UZT. 21**

**SARREREN ERREGISTROA**

Zenbakia ..... 236 .....

ZIZURKILGO UDALA

#### **ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA – EH BILDUREN IRAKURKETA ETA MOZIO PROPOSAMENA**

Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ) izaera sozialeko zerbitzu publikoa da bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko zailtasunak dituzten pertsonen laguntzeko helburua duena.

2015ean 4.843 pertsona artatu zituen zerbitzuak, horietatik 1.344 gizonezko eta 3.499 emakumezko; % 30 autonomia zen eta gainontzeko % 70 mendekotasun egoeran zegoen.

Tradizionalki, familiaren barruan geratu izan da pertsonen zainketaren ardura, bereziki emakumezkoen eskuetan, generoak eragindako ezberdintasunak oraindik gehiago areagotzea ekarri duelarik.

Gure politiken ardatzean pertsona jartzen dugunez, zainketaren garrantzia modu berezian azpimarratu behar dugu, baina pentsatzen dugu zainketa hori, nagusiki, erantzukizun publikokoa izan behar dela, zainketaren esparru familiarra gutxietsi gabe.

2005ean Foru Aldundiak lankidetzat hitzarmenak sinatu zituen lurraldeko udalekin ELZaren eskuordetze eta kudeaketa mandatuak bideratzeko mendekotasun egoeran zeuden pertsonen zerbitzua eskaintzeko, Eusko Jaurlaritzaren 155/2001 dekretuak ezarritako eskumen banaketaren arabera (mendekoak aldundientzat, autonomoak udalientzat).

Beraz, orain arte, zerbitzua udal araudien bidez antolatu eta arautu bada ere, Foru Aldundiak finantzaketaren zatirik handiena bermatu izan du, zehazki % 70. Ondorioz, esan genezake ELZ administrazio ezberdinek parte hartzen duten gizarte baliabide garrantzitsu bat dela.

12/2008 Gizarte Zerbitzuen Legeak 155/2001 dekretuak ezarritako eskumen banaketa aldatu egin zuen. Horrela, 22. artikuluan Lehen Mailako Arreta Zerbitzutzat jotzen da ELZ; eta, aldi berean, 27. artikuluan ezartzen da Lehen Mailako Arretako zerbitzu horiek udalei dagokiela eskaintzea eta betetzea, telelaguntza zerbitzua izan ezik.

Eskumen banaketa hori gauzatzeko epeari dagokionez, legearen bigarren xedapen iragankorrek urtebeteko epea ezartzen du. Hala ere, hirugarren xedapen iragankorrek beste bi betebeharrak ezartzen ditu:

Batetik, eskumen banaketaren ondorioz beharrezko finantza doiketa egitea herri-administrazioen artean “finantzaketa nahikorik bermatzeko”.

Bestetik, eskumen banaketa eta finantza doiketa berriak ezin duela ekarri zerbitzuaren intentsitatea eta estaldura jeistea.



#### ZIZURKILGO UDALA

Legearen aurreikustakoari jarraituz, 2015eko urrian onartu zuen Jaurlaritzak zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 dekretua. Bertan honela definitzen da ELZ:

“Laguntza eta prebentzio izaerako zerbitzu bat da, eta mendekotasun egoeran edo mendetasun arriskuan dagoen erabiltzaileari bere bizilekuan jarraitzen laguntzea, bizilekuan bertan moldatzeko eta ingurune komunitarioan integratzeko aukera emango dion etxeko arretarako eta arreta pertsonalerako laguntza bat eskaintzea eta, era horretan, isolamendu egoerak sahiestea du xede. Arreta pertsonala jasotzen dutenek edo mendetasun arriskuan daudenek soilik lortu ahal izango dute etxeko arreta.”

2016ko apirilaren 7an Eusko Legebiltzarrak Toki Erakundeei buruzko 2/2016 legea onartu zuen. Udalen lege berrian etengabe honako kezka hau agertzen da: udalei eskumenen bat esleitzen edo transferitzen baldin bazaie, eskumen hori benetan egikaritu ahal izateko beharrezkoa den finantzaketarekin joan beharko dela; eta 4. zein 21. artikuluetan horrela jasotzen da.

Baina udalen legeak aurreikusten ditu ere atzera begirako egoerak. Eta honela jasotzen da lehenengo xedapen iragankorrean:

“...udalerriek eutsi egingo diete lege hau indarrean sartzten denera arte indarrean dagoen legeriak eta dagokien finantziazioa daukaten eskumenak” [sic].

Eta bederatzigarren xedapen iragankorrean:

“Lege honen aurretik onartutako sektore-legeen edo foru-arauen erregalamendu bidezko garapenak berekin badakar udalerriei propiotzat esleitutako eskumenetik datozen zerbitzuak, jarduerak edo prestazioak zehaztea, finantzaketa egokia izan beharko du, nahitaez.”

Ondorioz, argi geratzen da ELZ, legezko eskumenei dagokienez, udal zerbitzua izan arren, ezin zaiela udalei transferitu, zerbitzua bermatzeak eskatzen duen finantzaketa doiketaren gainean adostasunik egon gabe.

Kezkatuta gaude Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren eboluzioarekin, datuek erakusten baitigute zerbitzua gainbeheran doala, poliki poliki, baina etengabe.

Ikus dezagun Gipuzkoako udalek eskainitako ordu kopurua (mendekoak eta autonomoak batera) azken 5 urteetan:

| 2012      | 2013      | 2014      | 2015      | 2016      |
|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| 1.259.041 | 1.216.426 | 1.195.103 | 1.170.996 | 1.148.264 |

Epe horretan eskainitako ordu kopuruen galera % 8,8koa izan da.



## ZIZURKILGO UDALA

Eboluzioa aztertzeko beste datu interesgarri bat izan daiteke Foru Aldundiak baimendutako orduetatik (mendekoentzat) zenbat erabili dituzten Gipuzkoako udalek epe horretan eta portzentaian.

2012-2016 baimendutako orduak: 1.275.010

Udalek ordu horietatik erabilitakoak:

| 2012   | 2013   | 2014   | 2015   | 2016   |
|--------|--------|--------|--------|--------|
| % 78,5 | % 74,4 | % 71,8 | % 70,3 | % 68,3 |

Gainbehera begibistakoa da.

Azkenik, bereizten baditugu autonomoen eta mendekoen artean, ikusiko dugu zehazkiago zein den bi profil horiei eskainitako orduen eboluzioa:

|            | 2012      | 2013    | 2014    | 2015    | 2016    |
|------------|-----------|---------|---------|---------|---------|
| Autonomoak | 258.028   | 267.896 | 279.525 | 274.096 | 277.440 |
| Mendekoak  | 1.001.013 | 948.530 | 915.578 | 896.899 | 870.824 |

Datuek erakusten digute gainbehera mendekotasunean dagoela, azken bost urteotan orduen galera % 13koa izan baita, autonomoen kasuan, berriz, igoera % 7,5koa izan den bitartean.

Gure ustez ELZ bidegurutzean dago bi arrazoiengatik: Alde batetik, ELZk berak dituen barne arazoengatik; eta, beste alde batetik, ELZren finantzaketaren gainean dauden zalantzengatik.

Etkez etxeko Laguntza Zerbitzuak ekarpen garrantzitsuak egin dizkio gure babes sistemari, esaterako:

- Pertsona bere inguru naturalean bizitzen jarraitu ahal izatea ahalbidetzen du.

- Pertsona zaintzaileei laguntza eskeintzen die.

- Sektore feminizatu batean enplegu duina sustatzen du, erregulatu gabeko zainketaren merkatuaren aurrean.

- Presioa jeisten laguntzen du administrazio publikoarentzat garestiagoak diren beste zerbitzu batzuen gainean, hala nola, egoitza zerbitzuen gainean, itxaron zerrenda arazo larria dutenak.



## ZIZURKILGO UDALA

Eta garrantzitsuena, gizarte zerbitzuetara sarbide bezala funtzionatzen du, beste arazo eta problematika batzuk detektatzen laguntzen duelako.

Baina ELZk arazoak ere baditu, adibidez:

Gaur egun soilik adineko pertsonengan zentratuta dago eta ez bestelako kasuetan, buru gaixotasunak edo desgaitasuna, kasu.

Intentsitate, ordutegi eta zerbitzu egunei dagokienean dauden mugak.

Kopagoa, oro har, altua da; eta, beraz, ez da lehiakorra erregulatu gabeko zerbitzu pribatuaren aurrean.

Baliabide ezberdinen arteko lehia (ad., mendekotasun prestazioekin).

Gipuzkoako lan hitzarmen baten falta, eta langileen lan baldintzak kopagoari lotuegi egotea.

Arestian esandako guztiarengatik, **herrialde mailako akordio politiko** zabala eratzea proposatzen dugu, lege ezberdinek aurreikusten duten finantza doiketa burutzen ez den bitartean.

Akordio politikoa proposatzen dugu herritarrengandik gertuen dauden bi administrazio publikoen artean, alegia, lurraldeko **udal eta Foru Aldundiaren artean**.

Akordioaren **xedea** zera da: pertsonaren zainketarako eta bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko hain beharrezkoa den **zerbitzua indartzea eta hobetzea**, konbentzituta baikaude horrek onura besterik ez diola ekarriko gizarte osoari, pertsonen zainketa hobetzeak gizarte osoaren ongizatea hobetzen duelako.

Mahai gainean jartzen dugun akordio proposamena honako **bi konpromiso** hauetan oinarritzen da:

1.- Foru Aldundiaren aldetik, gaur egun **Aldundiak** udalei baimentzen dien ordu kopuruan eta ordu horiei dagokien **finantzaketan murrizketarik ez ezartzeko konpromisoa**.

2.- Udalen aldetik, gaur egun **udalek** zerbitzura bideratzen duten **diru ekarpena handitzeko konpromisoa**.

- . Zerbitzuaren intentsitatea, ordutegia eta zerbitzu egunak zabalduz.
- . Langileei lan baldintza duinak bermatuz.
- . Zerbitzua beste esparru batzuetara zabaltzeko aukera aztertuz.



ZIZURKILGO UDALA

### MOZIO PROPOSAMENA

1.- Zizurkilgo Udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua pertsonaren zaintzarako ezinbesteko zerbitzua dela aldarrikatzen du, besteak beste, pertsona bere ingurune naturalean bizitzen jarraitzeko bermatzen laguntzen duelako.

2.- Zizurkilgo Udalak Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren garapen zein hobekuntzaren aldeko aldarria egiten du.

3.- Zizurkilgo Udalak Foru Aldundiari dei egiten dio udalekin ados dezala honako konpromiso bikoitza:

Aldundiaren aldetik, udalei baimentzen dien ordu kopuruan eta ordu horiei dagokien finantzaketan murrizketarik ez ezartzeko konpromisoa.

Udalaren aldetik, zerbitzua hobetzeko eta zabaltzeko neurriak aztertu eta ezartzeko konpromisoa; halaber, langileei lan baldintza duinak bermatzekoa.